



Arartekoaren 8/2013 Gomendio Orokorra, irailaren 24koa.
Osasun Sistema Nazionalean aseguratutako pertsonen osasun-arreta jasotzeko orduan alde aurretiko erroldak eragiten dizkien mugak.

I. Aurrekariak

1. Apirilaren 20ko 16/2012 Errege Dekretu-legea onartu zenetik administrazio-egoera irregularrean dauden atzerritarren osasun-arreta eskubidea egiaztatzeko orduan sortu izan diren gorabeherak direla eta, Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuaren [2013ko uztailaren 4ko Agindua](#) onartu da. Horrenbestez, gure Autonomia Erkidegoan atzerritarrek urtebetez erroldatuta egon behar dute [ekainaren 26ko 114/2012 Dekretuak](#) ezarritakoari jarraiki.

Auzitegi Konstituzionalaren [2012ko abenduaren 12ko 239/2012 Autoak](#) Dekretu horren atal jakin batzuen etendura bertan behera utzi ondoren, urtarril honetan Arartekoak ofiziozko espediente bat ireki zuen arlo horren inguruan aurreikusitako jarduerak zeintzuk ziren jakiteko xedez, eta indarrean diren ataletan (bereziki 2.3. artikuluan) ezarritako baldintzen inguruko galdeketa egin zion Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari.

Informazio-eskari horren erantzunean honakoa jakinarazi zigun sail horrek:
“En el supuesto de los extranjeros no registrados ni autorizados como residentes en España y empadronados en Euskadi, pero que no cumplen el requisito de empadronamiento continuado de, al menos, un año inmediatamente anterior a la presentación de la solicitud de reconocimiento de la asistencia sanitaria se procederá de la siguiente manera: valorada la solicitud, si es favorable porque cumple con el resto de requisitos, se les remitirá un documento de asistencia que tendrá validez en tanto no se cumplan los requisitos establecidos en el Decreto 114/2012, de 26 de junio”

Txartela eskatu baino urtebete lehenago erroldatuta zeudela frogatu ezin duten administrazio-egoera irregularrean diren atzerritarrei osasun-txartelak emateari uko egin zaielako norbanakoek zein gizarte-erakundeek aurkeztutako kexei informazio hori kontuan hartuta erantzun genien, hau da, osasun-arloko administrazioak gure autonomia erkidegoan balioa izango duen txartela emateko ustea duela jakinarazi genien.

2. Maiatza amaieran kontu horren inguruko beste kexa bat jaso genuen, eta berriro ere informazioa eskatu genion Osasun Sailari. Eskaria egiterakoan apirileko jakinarazpen hura aipatu genuen, gure ustetan urtebeteko eskakizun hori betetzen ez duten eta egoera irregularrean dauden pertsonen osasun-laguntza jasotzeko aukera emango dien bide bat prestatzeko asmoa erakusten baitzuen.



Alabaina, aipatutako 2013ko uztailaren 4ko Agindu hori argitaratu ondoren Osasun Sailak igorri digun erantzunean honakoa jakinarazi digu goian transkribatutako erantzunaren inguruan: *“No se debe interpretar por la lectura de este texto que el Departamento de Salud iba a facilitar tarjeta sanitaria a las personas en esta situación. A las personas que no cumplen el requisito del Decreto 114/2012 les es aplicable el art. 3 ter del ROL 16/2012 que establece que los extranjeros no registrados ni autorizados como residentes en España recibirán asistencia sanitaria de urgencia por enfermedad grave o accidente, cualquiera que sea su causa hasta la situación de alta médica, y la asistencia al embarazo, parto y postparto. En todo caso, los extranjeros menores de dieciocho años recibirán asistencia sanitaria en las mismas condiciones que los españoles.”*

Azken erantzun horretan **osasun-txartela** aipatzen da, aurreko jakinarazpenean ez bezala. Orduan honakoa adierazi ziguten: *“documento de asistencia, que tendrá validez en tanto no se cumplan los requisitos establecidos en el Decreto 114/2012, de 26 de junio”*. Ezberdintasun hori gora-behera, ez dugu uste honako hau interpretazio-arazoa denik. Izen bat zein bestea erabili, argi dago urtebetez erroldatuta egotearen baldintza betetzen ez dutenei laguntza-agiri bat eskaintzeko bidea zabaltzeko asmoa zuela jakinarazi zigula Osasun Sailak.

2013ko uztailaren 4ko Aginduan EAEn osasun-laguntza aitortzeko prozedura bakarrik arautzea aukeratu izanak alde aurretik adierazitako borondate hori aldatu dela adierazten du, identifikazio-agiria 114/2012 Dekretuko baldintzak betetzen dituztenei bakarrik emateko prozedura ezartzen baitu. Horrenbestez beharrezkoa iruditu zaigu honako gomendio hau egitea, erroldatuta daramaten denborak mugatzen dituelako premia duten pertsonen osasun-laguntza jasotzeko aukera bermatzeko xedez.

II. Gogoetak

1. Lehenik eta behin, kontuan hartu behar da Giza Eskubideen gaineko Nazioarteko Zuzenbideak (GENZ) eta Espainiako Konstituzioak giza eskubidetzat jotzen dutela osasunerako eskubidea. Arartekoaren [“Giza eskubideak, krisi ekonomikoko garaietan egiten diren politikoen publikoen berme gisa”](#) (2012ko ekaina) azterlanean GENZak duen balioaren eta politika publikoetan giza eskubideen ikuspegiak duen esanahiaren gaineko gogoeta bat aurkituko dugu.

Osasun-laguntza jasotzeko orduan talde jakin batzuei jartzen zaizkien mugei dagokienean, 16/2012 Errege Dekretu-Legea atzerapauso garrantzitsua izan da osasun-eskubideari dagokionean, eta gainera, ez dago neurri horren beharra justifikatzen duen arrazoirik.



Espainiak berretsitako [Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturei buruzko Nazioarteko Hitzarmenak](#) (EESKNH) ezartzen duen betebeharretako bat giza eskubideak inolako diskriminazio eta atzerapausorik gabe errespetatzea, babestea eta betetzea da.

EESKNH betetzen dela zaintzeko ardura duen Nazio Batuen EESK Batzordeak ezarritako irizpideen arabera, atzerapausoak ekarriko dituen neurriren bat hartu ahal izateko aldeaz aurretik frogatu behar da eskuragarri dauden baliabideak erabilita beste aukerarik geratzen ez delako neurri hori behar bezala justifikatuta dagoela. Ezarritako mugak aplikatu ondoren pertsona horien egoerak okerrera egingo ez duela ere frogatu behar da.

Botere publikoei dagokie herritarren aurrean euren politikak egokiak direla justifikatzeko zeregina. Halakorik egin ezean bidezkoa da muga-neurriek behar bezalako justifikaziorik ez dutela pentsatzea.

Horren inguruan Auzitegi Konstituzionalak 2012ko abenduan emandako Autoa gogorarazi nahi dugu, ekainaren 26ko 114/2012 Dekretuaren atal jakin batzuen etendura bertan behera utzi zuen Autoa, hain zuzen. Haren 5. oinarriak honakoa dio Estatuak dirua aurrezteari helduta egindako alegazioaren inguruan: *“el derecho a la salud y el derecho a la integridad física de las personas afectadas por las medidas impugnadas, así como la conveniencia de evitar riesgos para la salud del conjunto de la sociedad, poseen una importancia singular en el marco constitucional, que no puede verse desvirtuada por la mera consideración de un eventual ahorro económico que no ha podido ser concretado, entendemos que se justifica el levantamiento de la suspensión de la vigencia de los preceptos referidos a la ampliación del ámbito subjetivo del derecho a acceder a la asistencia sanitaria pública y gratuita.”*

Horrenbestez, esan beharra dago administrazio-egoera irregularrean diren pertsonen osasun-laguntza jasotzeko ezarri zaizkien mugek urratu egiten dutela nazioarteko estandarrek ezarritako osasun-eskubidea inolako diskriminazio eta atzerapausorik gabe babesteko obligazioa.

2. 114/2012 Dekretuan indarrean diren ataletan (bereziki urtebeteko eroldaren inguruko 2.3. artikuluan) aurreikusitako jardueren inguruan Osasun Sailak Arartekoari igorritako erantzun transkribatuak izan ditugu hizpide agiri honen aurrekarietan. Aipatu dugu, baita ere, 2013ko uztailaren 4ko Aginduak 114/2012 Dekretuko baldintzak betetzen dituztenei froga-agiria emateko prozedura baino ez duela ezartzen eta horrek urtebete erroldatuta egotearen baldintza betetzen ez dutenen inguruan aldeaz aurretik jakinarazi zitzaigun asmoa aldatzea dakarrela.

Hala ez balitz, hau da, aurreko jakinarazpenean adierazitako asmoak bere horretan jarraitzen badu (*“los extranjeros no registrados ni autorizados como residentes en España y empadronados en Euskadi, pero que no cumplen el*



requisito de empadronamiento continuado de, al menos, un año inmediatamente anterior a la presentación de la solicitud de reconocimiento de la asistencia sanitaria se valorara su solicitud, y si es favorable porque cumple con el resto de requisitos, se les remitirá un documento de asistencia que tendrá validez en tanto no se cumplan los requisitos establecidos en el Decreto 114/2012, de 26 de junio”) ez dakigu nola izango den posible egoera horretan dauden pertsonen behar duten segurtasun juridikoa emateko bidea aurkitzea.

114/2012 Dekretua onartu ondoren antzeman genituen zenbait datu ikusita badirudi garai batean modu formalean ezarritako baldintzen eskakizuna *debaluatuta* zegoela, hau da, urtebeteko eskakizun hori betetzen ez zuten pertsonen ere eskubidea onartzen zitzaiela.

Egoera hori aldatu egin da, eta segurtasun juridikoaren printzipioen kariatara gomendagarria da modu horretako funtzionamenduak ekiditea zuzenbidearen legezko konfigurazioarekin bat ez datorren prozedurarik egonez gero. Beraz, borondatea egon badago ere, badirudi aukera bakarra maila bereko araudia egokitzea litzatekeela.

3. Osasun-sistema publikotik kanpo geratzen diren pertsonen osasun-laguntza jasotzeko aukera ematen dienez 114/2012 Dekretuak duen norainokoaren inguruan mahaigaineratutako interesen arabera Estatuak eta Euskal Autonomia Erkidegoak aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, Auzitegi Konstituzionalak 2012ko abenduan emandako Autoak bertan behera utzi zuen Dekretuaren indarraldiaren etendura.

114/2012 Dekretua berriro ere indarrean uzteko erabakia justifikatzeko orduan, Estatuak kontra egin dien neurrien ondorioak jasaten dituzten pertsonen osasunerako eta segurtasun fisikorako eskubidea hartu du kontuan Auzitegi Konstituzionalak, eta egokitzen jo du, baita ere, gizarte osoaren osasunerako arriskuak ekiditea.

Auzitegi Konstituzionalak bat egiten du Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako argumentuekin, uste baitu oso sentikorak diren ondasun konstituzionalen defentsari lotuta daudela, eta beraz, ezin direla hutsaldu dirua aurrezteko aitzakia hutsarekin.

Urtebetez errolatuta egon izanari dagokionean, indargabetze-autoak ez du zuzenbidearen 26ko 114/2012 Dekretua onartzerakoan kontuak hartu ziren arrazoiak ez diren beste zio berririk ematen. Beraz, Auto horren balio nagusia aukeratutako arauketa-instrumentuaren gainean ematen duen segurtasuna da, instrumentu horri esker Sistema Nazionaletik kanpo geratzen diren pertsonak ez baitira Euskal Osasun-sistematik kanpo geratzen, ez behintzat osasun-arreta jasotzeko ezarritako gutxieneko denboraren ondorioz.





Bestalde, Dekretu horren zioen azalpenak ere ez du argibiderik ematen alde z aurretik erroldatuta eman beharreko denbora-muga hori zergatik ezarri zen azaltzeko.

114/2012 Dekretuari esker Osasun-sistema Nazionalean laguntza jasotzeko aukera mugatua duten pertsonak EAEn jaso dezakete arreta. Hala ere, urtebeteko muga horrek laguntza jasotzeko eskubide gabe uzten ditu alde z aurretik urtebetez erroldatuta egon ez diren pertsonak.

Hasieran jaso dugun Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Hitzarmenaren ondoriozko obligazioen ikuspuntutik begiratuta, muga horren ondoriozko premia ekonomikoa frogatuta egon beharko da, eta pertsona horien egoera ez dela kaltetzen bermatu behar da. Horren inguruan berriro nabarmendu dezakegu lehen ere aipatu duguna, hau da, egon daitekeen aurrezki ekonomikoa alegatzea ez dela nahikoa, 114/2012 Dekretuaren etendura bertan behera uzten duen Auzitegi Konstituzionalaren Autoan jasotzen den bezalaxe.

Hori guztia azalduta, urtarrilean 114/2012 Dekretua egokitzeko Osasun Sailak zituen aurreikuspenei buruz galdetu genuenean bezalaxe, urtebetez erroldatuta egon izanaren baldintza betetzen ez duten pertsonenganako hurbiltasuna sustatzea da gomendio honen xedea.

4. Osasun-arretak eragina du gizakiengan eta giza eskubideen erabileraren muinari berari eragiten dio, beraz, halabeharrez jorratu behar da ikuspuntu juridikotik.

2012ko apirilaren 20ko 16/2012 EDL onartzearekin batera mugatu egin zen atzeritarrek Osasun-sistema Nazionalean osasun-arreta hartzeko duten aukera, administrazio-egoera arautuan daudenek bakarrik baitute eskubide hori. Gure Autonomia Erkidegoan, aldiz, 114/2012 Dekretuak osasun-arreta jasotzeko eskubidea aitortu zien pertsona horiei, beti ere baldintza jakin batzuk betez gero.

16/2012 EDL hori onartu zenetik egoera irregularrean diren atzeritarrek osasun-laguntza jasotzeko orduan dituzten mugen inguruan egon diren erabakiak kontuan hartuta, argi dago autonomia erkidegoan juridikoki onargarriak direla bestelako araudiak ere.

Beraz, esan dezakegu une honetan lakioa osasun arlokoa eta etikoa dela juridikoa baino gehiago. Osasun arlokoa, izan ere, euren administrazio-egoera edozein dela ere atzeritarrek gure Autonomia Erkidegoan osasun-arreta jaso ahal izateko aukerari buruzko eztabaida juridikoa gainditu ostean eta eskubide hori 114/2012 Dekretuaren bidez aitortzea ekarri zuten arrazoiak medio, litekeena delako urtebeteko muga hori kentzeak osasunerako ondorio positiboak ekartzea. Baina baita etikoa ere, osasun arloko profesionalen konpromisoaz gain ordezkari politikoen konpromisoak ere oinarri-oinarrizko egitekoa beteko baitu pertsona horien arretari aurre egiteko orduan.





16/2012 Errege Dekretu-Legeak ez bezala, Eusko Jaurlaritzaren 114/2012 Dekretuak onartzen du talde horri osasun-arreta aitortu behar zaiola norbanakoaren ikuspuntutik, baina baita horrela gizarteko gainerako taldeen babesa bermatzea ere errazagoa delako.

Gogoeta hori oinarri hartuta, urtebetez erroldatuta egon beharra muga bat da pertsona horiek osasun-sistema publikora hurbiltzeko orduan. Asegurudunak edo onuradunak ez direnek hitzarmen berezi bat izenpetzeko bete behar dituzten baldintzak arautzen dituen [uztailaren 26ko 576/2013 Errege Dekretuak](#) berak ere ez dio erantzunik ematen talde honi, aldez aurretik urtebetez jarraian bertan bizi izana frogatu behar dutela ezartzen baitu.

Muga hori ezartzeko arrazoiak ekonomikoak izan ziren, baina gogorarazi behar dugu 114/2012 Dekretuak norbanakoen eta gizartearen osasun-arrazoien alde egon zuela 16/2012 EDLak baztertzen dituen taldeak barne hartzerakoan.

Arazoa are larriagoa da, ziurrenik, EBko estatu kideen artean libreki zirkulatzeko eskubiderik izan ez eta klandestinitatean bizi diren atzerritarren kasuan. Hala ere, akatsa litzateke osasun-sistema behar bezala erabiltzeko arazoak dituzten bakarrak pertsona horiek direla pentsatzea.

Horrenbestez, gure inguruan bizi diren pertsona horien egoera ikusita, arreta jasotzeko eskubidea edozein ikuspuntutik (etikoa, lege arlokoa edo osasunari dagokiona) aztertuta, uste dugu egon dauden mugak ezabatzen saiatu beharko ginatkeela horiek gainditu ahal izateko.

Osasunerako eskubidea eta osasun-prestazioak jasotzeko aukera oinarrizko giza eskubide unibertsala da, eta herritar guztiei aplikatu behar zaie. Baina agerikoak diren justizia eta berdintasun arazoiez gain, badira kontuan hartu beharreko osasun arloko datuak aipatzen dituzten zenbait ahots ere. Horien arabera oztupo juridikoak ezabatzea ez da nahikoa, urrutiago joan behar da eta talde hori osasun-sistemetara hurbiltzea lortu behar da. Ikuspuntu hori kontuan hartuta, esan dezakegu gizabanakoek osasun-arreta jasotzeko duten eskubideaz haraindi doan interesa dagoela tartean hizpide dugun kasu honetan.

Horregatik guztiagatik, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari gomendio orokor hau egiten diogu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIO OROKORRA

Berrikusi egin dadila ekainaren 26ko 114/2012 Dekretuak ezartzen duen urtebetez erroldatuta egon izanaren eskakizuna, horrela Osasun-sistema Nazionalean asegurudunak zein onuradunak ez diren pertsonak benetan osasun-arreta jasotzeko aukera izan dezaten.

